

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Arraia-Maetzuko, Bernedoko, Kanpezuko, Lagrango, Urizaharreko eta Haraneko udalerrietan hiriko hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren zerga ordenantzaren aldaketa behin-betiko onartzea

Arabako Mendialdeko Kuadrillak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, onarpena eman zion Arraia-Maetzuko, Bernedoko, Kanpezuko, Lagrango, Urizaharreko eta Haraneko udalerrietan hiriko hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren eskaintza arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari.

Behin-behineko onarpena ALHAOn argitaratu zen, 2021eko irailaren 20ko ALHAOn (107 zk.). Jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ezenez gero, erabaki hori behin-betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aipatutako ordenantza horren aldaketa oso-osorik argitaratzen da, aurrerantzean indarra izan dezan:

Eranskina: Tasak

1 epigrafea. Etxebizitzak, txokoak (etxebizitzetatik at), gastronomia elkarteak, nekazaritza etxeak, landetxeak eta antzeakoak: 88,80 euro.

2 epigrafea. Bulegoak, lantegiak, jakiak saltzen ez dituzten dendak, tabernak, gizarte etxeak eta antzeakoak: 177,60 euro.

3 epigrafea. 8 plaza baino gutxiagorentzako nekazaritza-turismoko etxeak, landetxeak, landa-apartamentuak, aterpetxeak, apopilo etxeak, ostatuak eta hotelak: 177,60 euro.

4 epigrafea. 8 pertsona baino gehiagorentzako nekazaritza-turismoko etxeak, landetxeak, landa-apartamentuak, aterpetxeak, apopilo etxeak, ostatuak eta hotelak: 266,40 euro.

5. epigrafea: Elikadurako merkataritza-lokalak, elikagai-industriak eta jatetxeak: 266,40 euro.

6 epigrafea: Hirugarren adinekoren egoitzak: 266,40 euro.

Aipatutako tasak 2022. urtetik aurrera aplikatuko dira, eta tasa horiek urtean urteko errolda onartu ondoren kobratuko dira.

Santikurutze Kanpezu, 2021eko azaroaren 4a

Presidentea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA